



HILEKO ZOZKETAK / 10

Durangoko merkatua garai berrirako zabalik

Berrizte obrak amaituta, Durangoko merkatuak itxuraberrituta zabaldu ditu ateak. Zapatuan inaugurazio ekitaldi ofiziala egingo dute, 13:30ean / 4



"KANPOTIK DENA POLIT IKUSI ARREN, GURE EGUNEROKOA GOGORRA DA"

Paule Mallagarai lanpetuta baina pozik dabil 'Marierrauskin' musikaleko protagonista lanetan; astean zortzi emanaldi dituzte / 17



Abendibar eta Gisasola Euskadiko txapelketan lehiatuko dira, Abadiñon / 21

BARRA BASKULAGARRIA
259 €-RA ARTEKO **OPARIA***

* Sareta, erpinak eta espazio gaiturak
Obrak eta bitxirak sartuak

* Gaiturak 1.000 euroko balioa duen gaiturak izango dira. Gaiturak 1.000 euroko balioa duen gaiturak izango dira.

EDO KENDU EGIN DAITEKEEN ISPILUA
148 €-RA ARTEKO **OPARIA***

* Armarria sartuta
* Dizekiz eta murgarria berriz ditzazke

* Gaiturak 1.000 euroko balioa duen gaiturak izango dira. Gaiturak 1.000 euroko balioa duen gaiturak izango dira.

SCHMIDT
SUKALDEAK ETA ETXEEKO ALTZARIAK

AZAROAREN 4tik 30era
GOZATU GURE
UDAZKENEKO ESKAINTZEZ

Ekaitz Herrera KOMUNIKAZIOA

Nerea Mendizabal Etxebarria (Zestoa, 1976) psikopedagogoa eta aditua da komunikazio ez bortitzean. Azaroaren 12an Zornotzako Andra Mari ikastolan izango da gai horri buruzko berbaldia ematen. Komunikazioak hartu-emanetan duen funtzioa aztertuko du, asertibitate eta entzute aktiboa oinarri. Berbaldia 17:30ean izango da.

Komunikazio ez bortitza izango duzu hizpide. Beraz, abiapuntu horrek agerian uzten du komunikazio bortitza egon badagoela.

Noski. Eta denon baitan dago hori. Nire ibilbidean izendapen horrekin topo egin nuenean, ni neu ere ez nintzen termino harekin identifikatuta sentitzen. Izan ere, ez naiz intrusiboa, paperak galtzekoa, eta iruditzen zitzaidan ez nintzela bortizkeriaz dugun ideia sozial horretan sartzen. Alabaina, Marshall Rosenberg psikologo eta bitartekaria deskubrituta, nire bortizkeriak non zeuden ikasi nuen. Izan ere, bortizkeria horiek ez dira zertan izan haserreak edo egundokoak botatzeari. Bortizkeria min txikiak zein handiak sor ditzaketen zerbait dela ulertzen badugu, hortik ez gara inortxo ere libratzen. Adibidez, zerbaitek min egiten badigu, isiltasunera jo dezakegu edo hitz egiteko modu desberdina hartuko dugu. Minak, molestiak, txikiak zein handiak izan daitezke. Denok ditugu bortizkeria eta ez bortizkeria.

Hezkuntza zentro batean emango duzu berbaldia. Zeintzuk dira komunikazio bortitzaren aldaerarik ohikoenak ikastetxeetan?

Ikasleak eta seme-alabak guk erakutsi nahi diegun horren aurrean gogotsu, ados, eta sintonian daudenean, heziketa errazagoa da. Baina errealtatean haurrak eta gazteak ez dira beti gurasook edo irakasleek planteatzen dugun horrekin sintonian egoten. Eta hor talka sortzeko aukera asko dago. Horrenbestez, komunikazio ez bortizak dioskuna da erakutsi behar horretan modu setatien jarduten badugu, "ikasi egin behar duzu", "zure hobebeharrez da", "nik ere egin behar izaten ditut gustuko ez ditudanak" eta halakoak esaten, orduan eta gehiago urrutiratzen garela helburuetatik eta hartu-emanetatik. Hori guztia gizakiaren

lege naturaletan dago. Izan ere, norbait nabaritzen dugunean gudan zerbait aldatu nahian, zerbait lortu nahian, exijentziekin dabilela, hor erresistentziak sortzen dira. Inportantea da ikustea ikasleekin eta umeekin denok jokatzeko dugula bortizki eta ez bortizki.

Badago erremintarik hori guzti hori lantzeko? Zein irizpide dago komunikazio ez bortitza ikasketa komunitatean lantzeko?

Gizarte hezkuntza eta psikopedagogia ikasketak egin nitueanean, gatazkaren kudeaketarako erremintak ikasi nituen: enpatia, asertibitate, mugak. Horiek guztiak teoriarik ikasi nituen, baina gero, egunerokoan, baldar sentitzen nintzen, teoriak ez duelako beti laguntzen. Eta komunikazio ez bortitza deskubritu nuenean, niretzat zerbait zehatzagoa izan zen. Behar nituen helduleku guztiak eskaintzen zizkidan.

Adibideren bat emango zenuke? Zein erreminta eskaintzen du komunikazio ez bortitzak?

Seguru honako egoera hau irakasle askori gertatzen zaiela: azalpenak ematen egon eta ikasle batzuk kasurik ez egitea. Era berean, zein etxetan ez da gertatzen ohera joateko, mahaia batzeko edo lantxoren bat egiteko argibideak eman eta ez betetzea? Lehenik eta behin, garrantzitsua da argi izatea zer lortu nahi dugun: besteak nik nahi dudana hori egitea ala zerbait desberdina deskubritzea nitaz eta besteaz? Horrek markatzen du bortizkeriarako edo ez bortizkeriarako aldea. Ez hainbeste hitzek eta tonuak. Izan ere, esan dezaket "egingo duzu hau, maitea?", "jasoko duzu hau, laztana?", baina tonu horrek ez du bortizkeriarik gabeko mezua ziurtatzen. Itxuraz ez da bortitza, baina intenzioan bortizkeria ezkuta dezake. Eta ikasleak edo umeak hauteman egiten du hori. Esan dudana bezala, pausorik zintzoena zer lortu nahi dugun argi definitzea da.

Demagun umeek edo ikasleek zeozer batzea edo zereginen bat

"UMEENGANA ZUZENTZEAN, ZER LORTU NAHI DUGUN ARGI IZATEA KOMENI DA"



Nerea Mendizabal.

"Komunikazio ez bortitza tresna boteretsua da gatazketan ulerkorrak izateko"

NEREA MENDIZABAL ETXEBERRIA KOMUNIKAZIO EZ BORTITZEAN ADITUA

Psikopedagogo zestoarrak komunikazio ez bortitzari buruzko berbaldia emango du Zornotzako Andra Mari ikastolan. Azaroaren 12an izango da, 17:30ean

egitea gura dugula eta eurek ez dutela kolaboratzen.

Adierazi dezakegu egoera horrek, demagun zerbait nahasita ikusteak, ordenarik gabe egoteak, urduritu edo nekatu egiten gaituela eta lasai egon nahi dugula. Hori guretzat zergatik den inportantea argitu behar dugu. Honako hau adierazi diezaiokegu: "Ikusten dut gauzak lurrean daudela eta jolasean jarraitzen duzula. Urduri eta nekatuta nago, eta, lasai egoteko, laguntza eta lan-

kidetza behar ditut. Jolasteari utzi eta gauzak bere lekuan utziko dituzu orain?" Modu horretan, asertibitate lantzen ibiliko gara, lau elementu aintzat hartuta: Zer ari da gertatzen? Zelan sentitzen naiz? Zer behar

"GIZAKI GUZTIOK DUGU EZ BORTITZAK IZATEKO GAITASUNA. HORRETAN ARI GARA LANEAN"

dut? Zer eskatzen diot? Jakina, hori guztia norbere alderdian ikusten da, baina kontuan hartu behar dugu beste aldean beste pertsona bat dagoela bere eskakizunekin eta emozioekin. Eta hor enpatiaren erreminta sartzen da jokoan, hain zuzen ere: bere jokabideak zergatik gertatzen diren ulertzea. Kasu horretan ere, lehen aipaturiko lau elementu horietan pentsatzeak lagundu egingo digu. Bi aldeak kontuan izatea garrantzitsua da.

Gurasoak edo irakasleak komunikazio ez bortitza lantzen hasten direnean egoerak aldatzera egiten du?

Jakina. Aldaketa horiek guztiak nik esperimentatu ditudan kasuetan igarri ditut, baita urte hauetan guztietan akonpainamenduan laguntzen dieran irakasleen eta gurasoen kasuetan ere. Dena dela, egiari zor, ezin dugu irudi faltsurik eman. Izan ere, batzuetan pentsa dezakegu era honetan komunikatuta edo umeari beste era honetan zuzenduta gatazkak konponduko ditugula, eta beti ez da horrela izaten. Erraztasunak emateak ez du esan nahi aurrekoa beti kolaboratzeko prest dagoenik. Nire esperientzian oinarrituta, komunikazio ez bortitza oso tresna boteretsua egiten zait gatazkatuak diren egoeretan geure burua eta besteena ulertzeko. Ulerkorrak eta goxoak izatea, hori bakarrik lortzea, aldaketa handia da norberaren ongizaterako.

Haserretzen garenean, posible da kontentzio lan bat egin eta komunikazio ez bortitza erabiltzea?

Bi profil daude. Haserretzen denean dena kolpetik kanporatzen duena da bata. Kasu horretan,

pertsona horren ikasketa kontentzio lana egiten ikastea da. Eta bai, hori posible da. Ez dut sinesen inpultsiboki jokatzeko dutenik ez dutela sekula kontentzio lanik egin, beti ez dutelako horrela erantzuten. Beste profilari dago-kionez, ez du esan nahi ez denik haserretzen edo mintzen. Baina pertsona horrek joera handiagoa izango du kontentzio lan hori behar baino denbora gehiagoan egiteko eta barrukoa ez kanporatzeko. Isiltasun horretan bortizkeria ere egon daiteke. Horrenbestez, profil horretakoari on egingo lioke gauzak adieraztera ausartzen ikasteak. Bi profilek dute zer ikasi, hau da, haien mina adieraztea parekoa mindu gabe.

Komunikazio aro honetan, sare sozialekin, albiste faltsuekin... komunikazio bortitza ote dabil gailentzen?

Marshall Rosenbergekin esaten zuen gizakiak 80.000 urte daramatxala bortizkeriarekin. Orain, horrekin jarraitzen dugu, nahiz eta formatuak aldatu egin diren. Komunikatzeko estrategiak aldatzen dabilta, eta horra ere iritsi da bortizkeria. Ez dut ikerketarik egin, baina iruditzen zait batzuetan errazagoa izaten dela aurpe-

girik ez emanda pantailaz beste-ko distantzia horretatik mezu bortitzak botatzea. Gainera, benetako komunikazioa, aurrez aurrekoa, presentziala, galtzen gabiltzala kontuan hartu behar dugu. Sortzen gabiltzan mundu honek bortizkeria handi batera garamatzala iruditzen zait. Herrialdeetako gatazkak, adibidez, hor daude. Edonola ere, lehengo esango dut: gerrak eta gatazkak lehen ere bazeuden. Beraz, bortizkeriari erresistentzia jartzen jarraituko dugu, izan ere, Rosenbergekin esaten zuen bezala, gizaki guztiok dugu ez bortitzak izateko gaitasuna. Horretan gabiltza.

Azaroaren 12ko berbaldiara joateko interesa dutenei zer esango zenieke?

Harremanez inguratuta gaudelako, eta gure harremanak zenbat eta atseginagoak izan, gure bizitza ere askoz hobea izango delako. Bestalde, gurasooi gehien inporta zaizkigun pertsonak gure seme-alabak direnez, me-rezi du haiengatik ordu eta erdiko edo ordu biko saiora etortzea. Irakasleei dagokienez, ordu asko ematen dutelako ikasleekin, eta hemengoa baliagarri izango zaielako.



Andra Mari ikastola. ANDRA MARI IKASTOLA

Parte hartzeko aukera, zabalik

Zornotzako Andramari ikastolak antolatutako jardunaldi hau doakoa eta zabala da, eta gaiagazko interesa duen edozein herritarrek parte hartu ahal izango du, familiei zein profesionali zuzenduta daude eta. Beraz, ikastolako guraso eta irakasleek gainera, interesa duen edozein herritar joan daiteke jardunaldira. Ikastolak azaldu duenez, bere helburua "etengabeko hausnarketan eta berrikuntzan jarraitzea" da.

Leku faltarik ez izateko, aurrez izena ematea gomendatu dute. Jardunaldietan parte hartzeko informazio guztia eta izen ematea Zornotzako Andramari ikastolaren webgunean dago: www.andramarizornotzakoiikastola.eus.

Antolatzaileek jakinarazi dute itzulpen eta zaintza zerbitzua eongo direla.



Oraindik ez zara ANBOTOk whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp kanalera



Eskaneatu QR kodea

* Izan zaitez berriemaile ere. Bidali zure argazki eta bideoak

Durangoko merkatua, erronka berrietarako prest

Zaharberritze lanak amaituta, Durangoko merkatuak itxuraberrituta zabaldu ditu ateak. Eraikinaren erdigunean zeuden postuak erretiratu dituzte, eta eremu bakar eta zabala ipini dute haien lekuan. Inaugurazio ekitaldi ofiziala zapatuan egingo dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko merkatu plazak itxura berria estreinatu du eta asteen zabaldu ditu ateak. Eraikineko aldaketarik esanguratsuen erdigunean dago, orain arte bertan postuz beterik egon den egitura ez dagoelako jada. Zaharberritze lanekin, erdialdeko postuok kendu egin dituzte eta eremu zabal-zabala atondu dute haien lekuan. Aurrerantzean, udalak askotariko ekintzak antolatu gura ditu bertan, merkatua "espazio bizia" izan dadin. Jarduera kulturalak, tailerrak eta topaketak dinamizatu gura dituzte.

Azpiegiturak 11 posturentzako lekua du. Euretariko hainbat martxan dira. Harategia eta urdaitegia, adibidez, astelehenean hasi ziren jeneroa saltzen. Eta egunek aurrera egin ahala, ozpinetako denda eta Durangaldeko baserritarren Etartie ere eguneroko zereginetara bueltatu ziren. Gainera, merkatu plazak beste nobedade bat ere badu,



Astelehenean, herritar ugari joan zen azpiegitura berriztu berria ezagutzera.

kafetegi bat, Arripukoen proposamen berria: Arripu Merkatu Plaza. Ostalariek Txibitenako tabernari eutsiko diote eta beste lokal bat kudeatuko dute hemen-dik aurrera, merkatuan. Hutsik dauden postuei dagokienez, udalak jakinarazi du eskaerak aurkezteko deialdi publikoa martxan dela.

Merkatuak dagoeneko ateak zabalik dituen arren, inaugurazio ekitaldi ofiziala zapatuan egingo dute, 13:30ean.



Plaza berria erabilgarri dago jada. DURANGOKO UDALA

Plaza berria zabaldu dute San Fauston: 'Independentzia Plaza'

Bernardo Gabiola kalearen ondoan dago. Umeentzako txintxaunak eta aisialdirako guneak ipini dituzte


Ekaitz Herrera DURANGO

Durangok beste izen bat gehituko bere kale-izendegiari: Independentzia Plaza. Plaza berria San Fauston dago, Bernardo Gabiola kalearen ondoan, eta bertako hirigintza obrei eskerrak atonduriko eremu berria da. Bertan txintxaunak ipini dituzte umeentzat, eta baita aisialdirako hiri-altzariak ere. Durangoko Udalak zehaztu duenez, urbanizazioa sustatzaile pribatuek egin dute, eta, aurrerantzean, udala arduratuko da azpiegitura mantentzeaz zein kudeatzeaz. Behar-ginak 2023ko otsailean hasi ziren

orube huts hartan urbanizazio lanak egiten. Eremu hori behar den moduan ipintzeko, 3.844.675 euroko inbertsioa egin dute. Udalak gaineratu duenez, Independentzia Plazaren inguruetan 294 etxebizitza berri eraiki ahal izango dira orain. Era berean, dagoeneko 71 etxebizitza libre eta babes ofizialeko beste 102 eraiki direla gogorarazi du.


2024ko irailean, udalak herri galdeketa egin zuen herriko hiru eremu izendatzeko. Independentzia Plaza izendapenak jaso zuen San Faustoko plaza berria izendatzeko babesik handiena.

Zer iruditu zaizu merkatu berriztua?




JOSE LUIS ITURRIAGA
-ETXEBARRIA HARAKINA

"Egia esanda, horrelako zerbaiten falta igartzen nuen. Orain arte egitura trinko bat egon da merkatuaren erdian; postu hutsak ziren euretariko asko. Nahiko ondo geratu dela uste dut. Hobera egiten gabilta. Argitasunean irabazi dugu, eta herritarrentzat leku gehiago dago orain".



MIREN ETA MANUEL
EROSLEAK

"Aldaketa handia igarri dugu. Merkatuak argitasun handia irabazi du eta iruditzen zaigu itxura garbiagoa daukala. Orain, jendea hona etortzea falta da, azoka barruan zeozer izan dezagun. Izan ere, huts samar dago oraindik. Ea apurka-apurka betetzen dugun".



JULI ZAPATA ETA NESTOR
OZPINA ARRIPIU MERKATU PLAZA

"Uste dut denok behar genuela horrelako eremu bat. Durangarrak zein ingurukoak tortilla jatera etortzera eta erosketak hemen egitera animatzen ditugu. Ohiko tortillez gainera, pernil eta gaztadun pintxoak, oilasko produktuak, gildak eta opilak eskainiko ditugu".



DURANGOKO UDALA

Mañaria erreka garbitzeko deia

Durangoko Udalak eta herriko hainbat elkartek Mañaria erreka garbitzeko jardunaldia antolatu dute domekarako. Saioa 10:00etatik 13:00etara egingo dute, Pinondo Etxearen paretik hasita. Antolatzaileek eskularruak, salabardoak eta zabor poltsak banatuko dituzte, eta parte hartzera eta kontzientzia ekologiko handiagoa hartzera deitu dituzte herritarrek.

"Etxebizitza larrialdia" aldarrikatu dute Durangon

Durangoko udalbatza osoak, PPk salbu, etxebizitza krisialdiari aurre egiteko konpromisoa hartu du

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko EH Bilduk, EAJk, PSE-EEK eta Herriaren Eskubideak adierazpen bateratua egin dute udalerrria "etxebizitza larrialdian" dagoela jakinarazteko. Lau alderdiek esan dutenez, momentu honetan 2.000 durangar baino gehiago daude Etxebiden izena emanda etxebizitza baten zain. Gaineratu dutenez, etxebizitza arloko eskumenik gehienak ez daude udalaren esku, baina, hala eta guztiz ere, esan dute tokiko administrazioak "funtsezko zeregina" daukala

irtenbideak bilatzeko. Horregatik, arazoaren "diagnostiko zehatza" egitea adostu dute, eta ikasurtea amaitu aurretik "proposamen zehatzak aurkeztuko dituzte etxebizitzaren krisialdiari eraginkortasunez" heltzeko. Udalbatzako bost alderdietatik PP izan da adierazpenera batu ez den bakarra.

Adierazpen bateratua kalera-tzetik aparte, gobernu taldeko kideek eta oposizioko alderdi nagusiak beren interpretazio propioa kaleratu dute. EAJk eta PSE-EEK gogorarazi dute San



PSE-EEKo, EAJko, EH Bilduko eta Herriaren Eskubideko ordezkariak. DURANGOKO UDALA

Faustoko 16 etxebizitza sozial herritarren eskura ipini berri dituztela, Alokabidegaz lankidetzan. EH Bilduk, bere partetik, adierazpena "garrantzitsua" dela esan du. "Arazoa identifi-

katzea lehenengo pausoa da, ondoren irtenbideak martxan ipintzeko". Aurrerantzean, proposamenak "mahaigaineratu eta martxan" ipini behar direla azpimarratu du.

Tabirako futbol zelai handiko argiztapen sistema aldatu dute

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak Tabirako futbol zelai handiko argiztapena hobetu du, argi-proiektore zaharrak aldatuta eta LED teknologiadun fokuak ipinita. Sistema berriak argiak urrunetik isiotzeko eta intentsitatea erregulatzeko aukera eskaintzen du. Instalazio berriak bost urteko bermea du, eta, horren barruan, matxurak zein ekipamenduaren mantentze-lanak daude. Iker Txertudi kirol zinegotziak esan du jarduketagaz "kalitate jauzia" egin dutela Tabiran: "Erabiltzaileen esperientzia hobetzeaz gainera, energiaren eta ingurumenaren ikuspegitik kudeaketa ardurasuagoa egiten gabiltza".

Jarkik Espainiako konstituzioa "apurtzera" deitu du Durangon

Abenduaren 6an manifestazioa egingo dute "Euskal Herriko langileak azpiratzen dituen uztarria apurtzeko"



Jarki antolakundeko kideek agerraldia egin zuten Durangon. JARKI

Ekaitz Herrera DURANGO

Jarkik manifestazioa egingo du Durangon, Frantziako zein Espainiako estatuek "inposatutako instituzio, legedia eta erregimenekiko apurketa" aldarrikatzeko. Manifestazioa abenduaren 6an egingo dute, 19:00etan. Adierazi duenez, estatu bietako konstituzioek "azpiratuta" mantentzen dituzte Euskal Herriko langileak. Hori dela eta, "apurketa eta konfrontazioa" aldarrikatu dituzte estatu bien "neurrigabekeriari" amaiera eman eta "Euskal Herriko langile klasearen proiektu politikoa" gauzatzeko. Era berean, konstituzio biek Euskal Herria tantarik tanta "disolbatu" gura dutela gaineratu dute, Euskal Herriak bizi dituen "zapalkuntza eta injustiziak" konstituzioetatik eratorritakoak direla iritzita.

Durangoko PPk Bizkaiko Aldundiagaz batzea eskatu dio EAJri AP-8ko bidesaria kentzeko

Bidesaria "kentzea edo prezioa gutxitzea" negoziatzeaz gainera, Mikeldiko idoloa Durangora ekartzea eskatu du

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Alderdi Popularrak Bizkaiko Foru Aldundiagaz "lehenbailehen" batzea eskatu dio alkateari, hiru gairi buruz berba egiteko". Batetik, autobideko bidesaria "kentzea edo prezioa gutxitzea" proposatu du Carlos Garcia zinegotziak. Bidesaria "bidegabetzat" jo du, hainbat urteren ondoren autobidea "guztiz amortizatuta" dagoela iritzita. Bestetik, Durangoko herriak jasotzen duen fi-

nantziazioa "berrikustea" eskatu du, udalerrriak, eskualdeko herriburua izatera eta bertan askotariko zerbitzu publikoak egotera, ez duelako "kostuei aurre egieko behar den besteko konpentsaziorik". Azkenik, Mikeldiko idoloa Bilboko Euskal Museotik Durangora ekartzea eskatu du. Era berean, Mikeldiko idoloa Durangora bueltatzeko proposamenak udaleko bost alderdi politikoen babesa duela gaineratu du Garciak.

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

BULEGORAKO
ZIGILUAK
FOTOLITOAK

**Ni flores,
ni funeral,
ni cenizas,
ni tantán**

La Dramatica Errante
Azaroak 15 · 19:00etan

San Agustín
KULTUR
GUNEa

Sanagustinaide, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

Luis Urrengoetxea kalea jai giroan murgilduta

Zornotzako Luis Urrengoetxea kaleko jaiak ospatuko dituzte domekara bitartean; publiko guztiarentzako egitaraua prestatu dute horretarako; zapatuan Moonshine Wagon eta Manifa taldeen kontzertuak egongo dira Zelaieta parkeko karpan

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Luis Urrengoetxea kalean jaiak ospatzen dabiltza egitarau oparoagaz. Urtero legez, pintxopoteagaz hasi zituzten jaiak egunean, eta horren ondoren asteburuko parrandagaz jarraituko dute gaur. 19:00etan igel txapelketa egingo dute, eta ordu erdi geroago karaoke ibiltaria egingo dute. Eguna borobiltzeko, Gu eta Gitarrak taldeak kontzertua emango du Euskal Herria enparantzan, 22:30ean.

Zapatuan goizetik hasiko dituzte ospakizunak. Udabarri dantza taldearen emanaldia 12:00etan egongo da, eta, ondoren, sukalki lehiaketa egingo dute. Gotx elektrotzaranga arduratuko da bazkalostea alaitzeaz; 18:00etan irtengo dira kalejiran, Lopena tabernatik. Gauean kontzertuak egongo dira Zelaieta parkeko karpan. Moonshine Wagon eta Manifa taldeek joko dute.



Moonshine Wagon taldeak zapatuan joko du. UNAI ENDEMONIUM

Desafioa

Jaiei amaiera emateko, ohiko beste ekitaldi bat egingo dute: giza proba. 12:30ean hasiko da, Harriti eta Lutaber emakumezkoen taldeen arteko desafioagaz. Ondoren, Gaztedi Barria txarangak

alaituko du giroa musikagaz. Festak 15:00ak arte iraungo du. Aurten, zozketa eginda amaituko dituzte Luis Urrengoetxea kaleko jaiak. Antolatzaileek gogoratu dute ekitaldiek aldaketak izan ditzaketela euria eginez gero.

Udazkeneko Emanaldia, loturak estutzeko

Zornotzako kultur eragileek Udazkeneko Emanaldia egingo dute azaroaren 14an

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako abesbatza guztiek bat egin dute Udazkeneko Emanaldi berezi bat egiteko. Horrela, Pandero Alai, Korala abesbatza, Dizdira abesbatza, Zornotzako Otxotea, Xuxurlariak abesbatza eta Andra Mari ikastolako gurasoen abesbatza batuko dira Zornotza Aretoan. "Urtean behin denok batzen gara eta urtean zehar egindako obra edo kanta berriak entzuten dizkiogu elkarri. Udazkenean emanaldi berezi hau egitea polita izan zitekeela iruditu zitzaigun", azaldu dute antolatzaileek. Emanaldia 19:30ean hasiko da.



Artxiboko irudi bat.

2026ko ordenantza fiskalak onartu dituzte

2026ko ordenantzak onartuta, udal tasak % 2,8 igoko dira, "zerbitzuen kalitatea bermatzeko"

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Udalak 2026ko ordenantza fiskalak onartu ditu. Horien arabera, % 2,8ko igoera orokor bat izango dute (uztailetik hasitako urteko KPI kontuan hartu dute), "udal zerbitzuen iraunkortasuna eta kalitatea bermatzeko, eta familia zornotzarrek zerbitzu irisgarriak eta kalitatezkoak dituen udalerrri batez gozatzeko jarraitzeko", azaldu dute udal iturriek. "Igoera kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzen jarraitu ahal izateko da, kostua neurritz kanpoko izan barik familia zornotzarrentzat", gaineratu du Ainhoa Salterain alkateak. Hain zuzen ere, udalak aurreko urteko hobari guztiak mantenduko ditu, batez ere familiak babesteko eta kultura eta kirolerako sarbidea errazteko. Gazteek eta familia ugariak deskontuak izango dituzte Musika Eskolan, udalekuetan eta Zornotza Aretoan, besteak beste.

Elorrioko Buzkantz kaleko urbanizazio lanak, amaituta

Aste honetan amaitu dituzte Buzkantz kaleko lanak; San Pio kalea itxita dago ibilgailuentzat



Buzkantz kalea.

A. M. ELORRIO

Elorrioko Buzkantz kaleko urbanizazio lanak amaituta, kalea berriro zabalik dago oinezko zein ibilgailuentzat. Maiatzaren amaieran hasi zituzten lanak, eta helburua zen kalearen irisgarritasuna zein segurtasuna bermatzea eta ingurune urbanoaren kalitatea hobetzea; uholde arazoak ere hobetu zituzte. "Helburua bikoitza da; alde batetik, Elorrio bizigarriago eta gertukoago bihurtuko duten eremu irisgarriagoak eskaintzea, eta bestetik, herritarren eskaerari erantzutea uholde arazoak konponduta", azaldu dute udal arduradunek.

Bestalde, langileak San Pio kaleko lanak egiten dabiltza orain. Obrak amaitu bitartean, errepidea itxita egongo da ibilgailuentzat.

Azken saioa Amatasun Feministak jardunaldietan

Berrizen egiten dabiltzan 'Amatasunak eta feminismoa' berbaldi sortako azkena abenduan egingo dute

A. M. BERRIZ

Amatasuna eta feminismoa uztartzen dituen berbaldi sorta antolatu dute Berrizen 'Amatasun feministak, ideatetik errealitate' lelopean. Zikloa amaitzeko, azken berbaldia falta da; abenduaren 4an izango da, *Zaintza eta ardura erantzunkidetasuna* saioa. Aurrekoak legez, Nahia Alkorta Elezgaraiak eman du. Alkorta Sabeletik Mundura webgunearen sortzailea da, eta baita *Mi parto robado* liburuaren egilea ere. Azken saio honetan, egunerokotasunean

gertatzen diren desorekak, zama mentala eta "zaintza-etxea-bizitzaren uztartze erantzunkide eta parekiderako dinamikak" biltzen ditu tailerrean.

Berbaldia Berrizko Kultur Etxearen atzealdean izango da, 17:00etan hasi eta 18:30era arte. Berbaldiak doakoak diren arren, Berrizko Berdintasun Sailak aurretik izena ematea gomendatzen du. Horretarako, *berdintasuna@berriz.eus* helbide elektronikoa eta 603 837 471 eta 94 682 45258 telefono zenbakiak ipini dituzte.

GREMIOEN GIDA

 Zurgintza



Eraberritzeak
Interiorismoa:
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 Zurgintza



EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar
635 74 84 65
www.carpinteriaaterpe.com

 Dekorazioa



Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua, Industrialdea, 45 Garala A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 - Mug.: 658 758 421
info@jaioabarnizatuak.com
www.jaioabarnizatuak.com

 Elektrizitatea



ELECTRICIDAD JON

622 684 284
electricidadjon@outlook.es

 Iturgintza



M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 Iturgintza



UNAI
GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es



"Hartu-emanak sortu eta estutu egin ditut azokan"

INMACULADA ZUAZUA LOREZAINA

Inmaculada Zuazua Abadiñoko ekoizlea da; 2021ean Errekaldeko Lorak proiektua martxan ipini zuen; Abadiñoko hileroko azokako ekoizle finkoetariko bat da

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Herriko ekoizle eta artisau batzuen ekimenez, Abadiñon azoka egiten dute hileko bigarren domeketan. Orain urte bi hasi ziren ekimen honegaz, eta herriar askorentzat ohitura bihurtu da hileko bigarren domekan Txanportatik pasatu, erosketatxo batzuk egin eta goiza ematea. Herriarrentzat ez ezik, ekoizleentzat ere plaza garrantzitsua bihurtu da, eta askok hileko bigarren domeka dagoeneko lanegun legez koloreztatuta dute euren agendetan. Horietariko bat Inmaculada Zuazua da, Errekaldeko Lorak proiektuaren sortzailea.

Hasteko, noiz eta zelan sortu zenuen Errekaldeko Lorak?

Betidanik izan ditut gustuko loreak, eta eurekin lan egitea ere bai. Etxean bertan ortu txiki bat izan dut loreekin. Orain urte batzuk Arte Floral eta Maestro Florista ikasketak egin nituen, eta etxeko tejabana berriztu eta 2021ean atelier txiki bat ipintzea erabaki nuen. Harrezkero, loreak saltzen ibiltzen naiz.

Zer saltzen duzu?

Lore freskoekin eta zaindutako loreekin lore-zentroak egiten ditut. Baita etxe barrurako landareak ere, eta hauentzat loreontziak sortzen ditut. Horrez gai-



Inmaculada Zuazua.

nera, ahal dudana neurrian, bezeroek gura dutena lortzen ahalegintzen naiz.

Jendeak zelan erosi ditzake zuen produktuak?

Jendea Errekaldera etorri daiteke, telefonoz aurretiaz ordua hartuta edo Instagramen bitartez (@errekaldeko_lorak) idatzita.

Herritarrek hileko bigarren domeketan Abadiñon egiten den azokan ere badute aukera erosteko, bertako ekoizle finkoetariko bat zara eta. Zer suposatzen du zuentzat azoka honek? Garrantzitsua da?

Azoka oso interesgarria da niretzat; gainera, herrian bertan

daukagu. Nirea ez da ohiko denda bat eta Abadiñoko azokari eskerrak bezeroekin hartu-emanak sortu eta sendotu egin ditut. Behin hori lortuta, lasai bertaratzen dira dendara. Gainera, herriko ekoizle guztientzat erakusleihu galanta dela uste dut. Horrez gainera, herritarrei eta Abadiñora bertaratzen direnei bertako produktuak erosteko aukera eskaintzen zaie, eta, bide batez, domeka goiz berezi bat pasatu eta antolatzen diren ekintzekin gozatu dezakete. Benetan merezi du azokara etortzea.



Trañaetxoste kalea.

Traña-Matienan behin betiko ipiniko dute aparkalekuen sistema

Proba pilotuaren fasea eginda, moldaketa batzuk egingo dituzte; horietariko bat Trañaetxoste kalean izango da

M.Z. ABADIÑO

Ekainean martxan ipini zuten Traña-Matienako aparkaleku sistema berriaren proba pilotua, eta, emaitzak aztertu eta gero, Abadiñoko Udalak sistema hori behin betiko mantentzea erabaki du. Egoiliarrentzat aparkaleku aukerak hobetzea zen proba pilotuaren helburua, eta, aldi berean, tokiko merkataritzaren jarduera bultzatzea. Orokorrean, proba pilotua ontzat jo dutela jakinarazi dute. "Datuek erakusten dute okupazio maila handia dagoela egoiliarrentzako guneeetan, bereziki arratsaldeetan, eta TAO urdineko gunearen erabilera egokia dela. Hala ere, emaitzek iradokitzen dute aldagetak egin behar direla TAO berdea optimizatzeko", gaineratu dute.

Hori horrela eta emaitzak eskuan, udalak aldageta batzuk egingo ditu sistemaren funtzionamendua hobetzeko. Trañaetxosteko TAO guneko berdeko

aparkalekuen erabilera optimizatzeko, egoiliarrek mugarik barik aparkatu ahal izango dute 13:30etik aurrera. Era berean, Abadiñon matrikulaturiko ibilgailu guztiak egoiliarrentzako guneeetan aparkatzea ahalbidetzen zuen behin-behineko neurria behin betiko izatera pasatuko da. Horrez gainera, derrigorrezkoa izango da pegatina ibilgailuko ageriko leku batean eramatea, sistemaren jarraipena errazteko.

"Probaldiak Traña-Matienako aparkaleku sistema definitzeko eta bere funtzionamendua doitzeko balio izan du, herritarren esperientziak eta euren parte-hartzea oinarri hartuta. Egindako inkestaren arabera, iritzia eman zutenen artean % 60,3k uste dute harturiko neurriak egokiak edo oso egokiak direla, eta % 23,8k, ostera, desegokiak edo oso desegokiak", adierazi dute udal gobernu taldeko kideek.

Ongizate emozionala zaintzeko tailerra antolatu dute Mallabian

M.Z. MALLABIA

Ongizate emozionala zaintzeari buruzko *Hau zugandik hasten da* tailerra emango dute Mallabian. Nahikari Emakume Taldeak antolatu du saioa, udalaren laguntzagaz, eta norbere burua, emozioak eta erritmoak autorregulatzen ikastea da saioaren asmoa. Bertan, kontu

hauek landuko dituzte: indar emozionala, autorregulazioa eta emozioen kudeaketa, eta estrategia praktikoak.

Saioak Kontzejuzarren emanngo dituzte, eta, guztira 2 orduko 4 saio izango dira, 16:30etik 18:30era. Lehenengo saioa azaroaren 8an izango da, bigarrena azaroaren 15ean, hirugarrena azaroaren 22an, eta laugarrena azaroaren 29an.

Bertan parte hartzeko ezinbestekoa izango da aurretik izena ematea.

Palestinarekin Elkartasun Eguna, Abadiñon

Palestinarekin Elkartasun Eguna antolatu dute azaroaren 8rako Abadiñon. Txanportatik hasiko den kalejiragaz ekingo diote egunari, 12:30ean. 13:00etan dantzari eta txistularien saioa egongo da. Ondoren, frontoian bazkaria eta bertsopilota partidua egongo dira, besteak beste.



ELKARRERATATZE BATEKO ARGAZKIA.

BER BA



Berba 639 400 786 
lagun
praktikatu.eus/blog/durangaldea
durangaldea@aek.eus



**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

AZAROKO ZOZKETAK



BASA take away jatetxeko bi gazta tarta razio. Zaporeak aukeran: gazta tarta labean, pistatxo, kitkat, mango, oreo, lotus edo pantera rosa.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Tailerra Atxondoko liburutegian izango da.

Nerabeekin taburik barik berba egiteko tailerra Atxondon

Urtxintxa eskolak gidatuta, nerabeek hartu-emanak, autoestimua eta sexualitatea gaiak landuko dituzte zapatuan

J.D. ATXONDO

Berdintasun Kontseiluak herri-tarrentzat urtean zehar antolatzen dituen askotariko ekintzetariko hurrengo zapatu honetan izango da. Oraingoan 12tik 16 urtera arteko nerabeei begirako tailer bat antolatu dute, *Zelan harremandu nahi dut?* izeneko. Tailerra arratsaldean izango da, 16:00etatik 18:00etara, liburutegian. Urtxintxa eskolako kideek dinamizatuko dute, euskaraz. Urtxintxa eskola aisialdi hezitzailean diharduen erakundea da, eta balioetan, hezkidetzan eta gizarte-eraldaketan oinarrituriko hezkuntza sustatzea du helburu.

Antolatzaileek honela definitu dute tailerraren helburua: "Hartu-emanak, maitasuna, ligatzea, sare sozialak, gorpuztagaz zelan sentitzen garen... Kontu asko mugitzen zaigu buruan eta beti ez da erraza horiei buruz berba egitea. Tailerra elkarregaz pentsatu, partekatu eta barre egiteko espazio bat izango da", esan dute. Honako gai hauek landuko dituzte, besteak beste: tratu onak eta hartu-eman osasuntsuak, autoestima eta sexualitatea.

Antolatzaileek honela definitu dute tailerraren helburua: "Hartu-emanak, maitasuna, ligatzea, sare sozialak, gorpuztagaz zelan sentitzen garen... Kontu asko mugitzen zaigu buruan eta beti ez da erraza horiei buruz berba egitea. Tailerra elkarregaz pentsatu, partekatu eta barre egiteko espazio bat izango da", esan dute. Honako gai hauek landuko dituzte, besteak beste: tratu onak eta hartu-eman osasuntsuak, autoestima eta sexualitatea.

Goazen telesailaren aurrestreinaldia ikusgai, gaur

ETB1eko fikzio honek udaleku zorrotz bateko gazte euskaldunen ibilerak ditu ardatz

J.D. ATXONDO

Atxondok *Goazen* telesail musikalaren 12. denboraldiko aurrestreinaldia hartuko du gaur, azaroak 7, 20:00etan, erabilera anitzeko gelan. Atxondoko Udalak eta UEMak (Udallerri Euskaldunen Mankomunitateak) elkarlanean antolatu dute emanaldia.

Goazen ETB1en emititzen den euskarazko telesaila da, musika eta abenturaz betea. Fikzio honek udaleku zorrotz batean euskaldun gazteen talde baten ibilerak ditu ardatz. Iazko denboraldiko aurrestreinaldiak ikusmina eragin zuen Atxondon.



Telesailako protagonistak.

Jorge Garciak organo kontzertua emango du Mañariko elizan

Garciak goi mailako maisuekin ikasi du. Europan zein Asian eman ditu zuzenekoak. Irakasle ere badabil

J.D. MAÑARIA

Mañariko elizan goi mailako organo kontzertua ikusteko aukera dago azaroaren 15ean, 19:00etan. Musikagintzan ibilbide luze eta oparoa duen Jorge Garcia organistak emango du kontzertua. Garcia organo eta inprobisazio historikoko masterrak egindakoa da Suitzako Schola Cantorum Basiliensis, Lorenzo Ghielmi maisuagaz, besteak beste. Gaur egun, organista eta irakasle lanetan dabil. Ikerketa lanak ere egiten ditu.



Jorge Garcia organo-jotzailea.

Lur Kortak munduko istorioak kontatuko ditu Izurtzan

J.D. IZURTZA

Izurtzako erabilera anitzeko aretoak Lur Korta ipuin kontalari, aktore eta antzerki irakaslearen ipuin kontaketa saioa hartuko du azaroaren 14ko barikuan, 17:30ean. Udalak antolatutako ekimena da eta bost urtetik gorako umeei zuzenduta dago. Kortak 25 urte baino gehiagoko ibilbidea du ipuin kontalari legez. 1999az geroztik, bere maletatxoak ideiez, objektuz, panpinez, eta abarrez bete eta herririk herri ibiltzen da haur eta gazteei bere ipuinak eta istorioak kontatzen. Azken urteetan irakurketa klubak ere antolatu ditu, hainbat belaunalditako jendeagaz irakurzaletasuna bultzatzeko.



Azaroaren 5ean egindako aurkezpenaren ondoren ateratako argazkia. OTXANDIOKO UDALA

Otxandiok elkarbizitzarako bide orria sortu du

Kulturarteko elkarbizitza sustatzeko lan-ildoak zehaztu dituzte Otxandion. Horretarako, diagnosi bat egin dute kulturartekotasuna eta elkarbizitza aztertzeko. Asteon aurkeztu dute herrian, prozesua borobildu eta ekarpenak batzeko

Aitziber Basauri OTXANDIO
Otxandioko biztanleria osoaren % 12 jatorri atzeritarrekoa da. Familia egituren bizi dira orokorrean. Kasu askotan, emakumea umeei herrian bizi eta gizonak beste nonbait lan egiten du. Horixe da Otxandion izandako prozesuaren berezitasuna, eta, azken 20 urteetako bilakaeraren aurrean, udalak Migrazio eta Elkarbizitza Plana landuko du; horretarako, diagnosi bat egin du kulturartekotasuna eta elkarbizitza aztertzeko. Martxoan hasitako prozesua borobildu eta ekarpenak batzeko, *Jatorri atzeritarreko bizilagunak eta harrera-gizarteak: kulturartekotasunerako elkarbizitza*

tza jomuga proiektua aurkeztu dute herrian asteon. Elhuyar aholkularitza taldeak egin du diagnosa, udalaren eta 11Lore elkartearen laguntzagaz. "Premia berriak sortzen ari zirela ohartuta, garrantzitsu ikusi genuen egoera zein den jakitea, dauden premiei erantzuteko", esan zuen Maider Arejolaleiba zinegotziak. 11Lore elkarteak Julen Vilaltaren berbetan, "lehenengo erradiografia" bat egin dute. "Jatorri atzeritarreko herritarrei galdetu diegu, euren premiak ulertzeko; Otxandion topatutako traben inguruan galdetu diegu, kulturarteko elkarbizitza sustatzeko ezinbestekoa", esan zuen Vilaltak.

Elhuyarreko Leire Lizarralde argitu duenez, errolda eta hezkuntza arautuko zein ez-arautuko datuak bildu dituzte. Estatutik kanpoko migratuekin eta estatu barrukoekin talde elkarbizitzak egin dituzte, eta modu askotan eragin dezaketen herriko elkarte eta eragileekin batu dira. Informazio osoa baliatuta, hiru lan-ildo finkatu dituzte: integrazioaren ulerkera eta traktu partekaturantz pausoak emateko premia; parte hartzeaz harago parte izateko bidea egin beharra; eta, euskara ardatz dela, gizarte eta hizkuntza aniztasuna kudeatzeko erronka. Horretan eragiteko, ekintza zehatzak garatuko dituzte.

Otxandion A25ari begirako batzar batera deitu dute gaurko

A.B. OTXANDIO
Iaz Indarkeria Matxistaren Aurkako Emakume Asanblada sortu zuten Otxandion, indarkeria matxistaren aurkako "etengabeko lanketa" egiteko. Gaur bilera zabala egingo dute Bola-lekuan, taldearen nondik norakoak azaltzeko eta A25era begirako antolaketagaz hasteko. Batzarra 18:30ean hasiko da.

Garaiko nagusien irteera Mañariko Hontza museora

E.H. GARAI
Garaiko nagusien elkarteak arratsalde kultural batez hasiko du udazken-neguko denboraldia. Gaur, azaroak 7, Mañariko Hontza museora joango dira, bost kontinentetako faunaren berezitasunak eta misterioak ezagutzera. Mañarira joateko, plazan elkartuko dira, 16:30ean.



Hontza museoa.

Zaldibarko etxe hutsei % 150eko errenergua ezarriko diete

"Arazo handia dugu etxebizitzagaz; gure esku dagoen dena egin behar dugu horri heltzeko", esan du alkateak

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko udalbatzak 2026ko ordenantza fiskalak onartu ditu, fokua etxebizitza hutsetan ipinita; datorren urtetik aurrera, % 150eko errenergua ezarriko die higieizinei. Kontua da Bizkaiko Foru Aldundiak etxebizitza hutsei % 50eko gainordaina ezartzeko aukera eskaini duela orain arte, baina kopuru hori % 150era handitzeko aukera aktibatu duela oraintsu. Eta hori horrela, Zaldibarko Udalak gainkargu kopururik handiena ezartzea erabaki du, "udalerriko etxebizitza hutsen merkaturatzea eta alokairua bultzatzeko". Eneritz Azpitarte alkateak honela arrazoitu du erabakia: "Arazo handia dugu etxebizitzagaz, eta gure esku dagoen dena egin behar dugu horri heltzeko. Honako hau ez da arazoari irtenbidea

emateko behin betiko pauso bat, ezpada konponbideari begirako urrats bat".

Neurriak EH Bilduren aldeko botoekin egin du aurrera; EAJk eta PSE-EEk, ostera, kontra egin dute. Jeltzaleek "gehiegizkotzat" jo dute etxebizitza hutsei ezarritako errenergua, eta gainkargu hori urterik urte "era progresiboan" egitea iradoki zuen Baltasar Gomez zinegotziak. Sagrario Sanchez sozialistak ere bat egin du jeltzaleen interpretazioagaz. "Gehiegizkoa" iritzi zion igoerari.

Etxebizitza hutsena ez da Zaldibarko ordenantza fiskalen azken berritasuna. Zerga eta tasa arruntak % 2,5 igoko dituzte, hondakinak batzeko zerbitzuagaitiko tasa salbu. Azken hori % 15 igoko dute, zerga Europar Batasunak agindutako legedira egokitzeko.

Larrakozelaiko sare bat moztu dutela salatu du lurretakok

Lurretako Kirol Taldeak Larrakozelaiko instalazioetan gauetan bideozaintza ipintzea eskatuko dio udalari

J.G. IURRETA

Joan zen bariku gauean, ezezagun batzuek Larrakozelai futbol zelaiko ate bateko sarea moztu zuten. Lurretako Kirol taldeko arduradunek gogoratu dute aurretik ere "beste gertaera batzuk" izan direla Larrakozelai futbol zelaietan, denak gauean. Horregaitik, Larrakozelaiko instalazioetan gauetan bideozaintza ipintzea eskatuko diote Lurretako Udalari.

Ateko sarea moztu bazuten ere, asteburuko partidua eragozpenik barik jokatu ziren. Zapatu arratsaldean, Erregional A mailako futbol partidua jokatzera joan eta gertatutakoak konturatuta, taldeko arduradunak segituan hasi ziren beste sare baten bila asteburuko partidua jokatu ahal izateko. "Udalzainak etorri ziren eta partidua hasi baino ordubete lehenago



Ateko sarea apurtuta. IURRETAKO K.T.

sare bat lortu ahal izan genuen. Asmo txarreko eta arrazoirik bako gertaera hori gorabehera, Erregional A mailako taldeak Galdakaoren aurka jokatu ahal izan zuen", azaldu zuen Jon Birixinaga Lurretako taldeko arduradunak.

1945. urtekoen bazkaria, bihar

M.Z. DURANGO

1945. urtean jaiotakoek kintoen bazkaria egingo dute zapatu honetan, azaroak 8, Durangon. Aurten 80 urte egin dituzten edo egitear dauden gazte hauek animoso eta parrandarako gogoz batuko dira beste urte batez. Aurten Durangoko Kukutze jatetxean egingo dute bazkaria.



AURREKO URTE BATEKO ARGAZKIA.

DURANGALDEA ASTEON



KANPAINAREN AURKEZPENEN ARGAZKIA.

Zuberoako Ikastolen aldeko Ikaskoli kanpaina, abian

DURANGALDEA Ikaskoli martxan da, Zuberoako Ikastolei laguntzeko eta bertako ekoizpenak ezagutu zein dastatzeko sorturiko kanpaina. Gabonetako otzarak prestatu dituzte bertako produktuekin, eta www.ikaskoli.eus webgunean erosi daitezke. Hiru otzara dau- de aukeran, eta abenduaren 12tik aurrera Durangoko Kurutziaga Ikatolan eta Intxaurre elkarte- en edo Zornotzako Andra Mari Ikastolan jaso ahal izango dira.

Choucroute ikastaroa Alazne Intxausperen eskutik

IURRETA Berbalagunek antolatuta eta Alazne Intxauspe baserritarren eskutik, *choucroutea* prestatzeko ikastaroa egingo dute Orozketan azaroaren 13an. Saioa 17:30etik 19:30era izango da. Bertara joateko, autoz irtengo dira Durangoko Aramotz aparkalekutik, 17:10ean. Izen emateak 639 400 786 zenbakian egin behar dira.

GUTUNAK

Akordatzen naiz

ANE ORTUONDO BIKANDI

MAIZTEGI HERRI ESKOLAKO IKASLE OHIA

Akordatzen naiz amestu genuela, liburu zahar baten orrialdeetan bezain bizi.

Akordatzen naiz herri txiki handi bateko haizeak ekartzen zuela ametsa, eta guk, komunitate osoak, elkarrekin eutsi genion haize ametsari.

Akordatzen naiz ikasleen begiradak distiratsu zirenean, etorkizuna marrazten zuten begi txiki haietan.

Akordatzen naiz eskola herria zela, eta herria eskola.

Akordatzen naiz gure istorioa historian herritik eta herriarentzat.

Akordatzen naiz horma eta mugarik gabeko amets ez.

Akordatzen naiz komunitatea ginela, herria ginela, denak ginela.

Akordatzen naiz gure herriko txikiek duintasun eta maitasunetik eraikitako jolastokian jolastuko zirela zin egin zigutenean.

Akordatzen naiz aukera berdintasunaz hitz egiten genuenean, eta hitzak ez zirela soilik hitzak, baizik eta eguneroko keinuak: eskua luzatzea, elkar entzutea, elkarrekin eraikitzea...

Akordatzen naiz inklusio hitza gure patioan jaio zenean, haurren barreak nahasten zirenean, nork bere modura, baina elkarrekin.

Akordatzen naiz amets hori gure herriaren bihotzean sustaitu zela, eta gaur, berriro, gogoratu nahi dudala.

Zeren akordatzen garenean, ez gara iraganera itzultzen soilik; etorkizuna ere berridazten dugu. Eta orrialde berri horretan, gure herriko eskolak idazten jarraituko du.

Eta guk... egingo dugu!

Zure gutuna helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTÖren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN



**HERRIAREN
ESKUBIDEA -
INDEPENDENTEAK**

Igoerak udalean, galderak kalean

Durangon, gure ordezkari politikoek lau aldiz igo dituzte soldatak bi urtean. Eta galdera nagusiak hortxe daude: benetan beharrezkoa al zen? Benetan bidezkoa? Zer mezu bidaltzen da halako erabakiekin?

Politikak herritarren zerbitzura egon beharko luke, ez norberaren mesedetan. Diru publikoa guztiona da, eta arduraz, gardentasunez eta neurritz kudeatu behar da. Baina hori betetzen al da?

NOREN ALDE EGITEN DA POLITIKA, NORBERAREN ALDE ALA DURANGARREN ALDE?

Ez da politikarien lana guxtiestea, baizik eta koherentzia eta eredu eskatzea. Herritarrei austeritatea eta zorroztasuna eskatzen zaizkienean, zergatik ez da printzipio bera aplikatzen udal gobernuan?

Agian ez da zenbatekoa gehien kezkatzen gaituena, baizik eta sinboloa: agintarien eta herritarren arteko distantzia handitzen ari dela sentitzen dugu. Eta politikak, alderantziz, hurbiltasuna eta konfiantza sortu behar litzuke.

Azken batean, galdera bat geratzen da: noren alde egiten da politika, norberaren alde ala durangarren alde?

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Marketina: Deñe Izaga Yeregui.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.





LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



SEGIDARI JARRAITU



MARGOTU

Margotu gurago duzun moduan



ITZALAK

Zein itzal dagokio irudi bakoitzari?



MATEMATIKA

 = 3

 = 4

 = 2

 = 5

 +  = 

 +  = 

 -  = 

 -  = 

"Zortea dut egunero talde honegaz lan eginda"

PAULE MALLAGARAI ANTZEZLEA

ANTZERKI MUSIKALA Teknika ez ezik, Paule Mallagarai deritzo ezinbestekoa dela barruko orekari eustea astean 'Marierrauskin'-en zortzi emanaldi egiteko

Aritz Maldonado DURANGO

Urrian *Marierrauskin* musikala estreinatu zutenetik, Paule Mallagarai durangarra lanez lepo dabil: Madrilgo Coliseum antzokian egiten dituzte emanaldiak, astean zortzi. Lanpetuta baina pozik dabil durangarra. "Horretarako prestatzen ibili gara azken hileetan", esan du.

Zelako harrera izan du 'Marierrauskin'?

Estreinaldia oso egun polita izan zen, maite dugun jende asko etorri zen-eta gu ikustera. Espero genuena pasatu zen gero; jendea oso pozik irten zen antzokitik, eta gu ere pozarren geratu ginen. Gure arteko kimika oso ona da eta zorte itzela dut egunero lantalde honegaz musikala hau egin ahal izateagaz. Beraz, dena oso ondo joan da.

Abuztuan hasi zineten entseguekin. Ordutik hona egunero elkarregaz lan eginda, familia moduko bat bihurtuko zineten?

Taula gainean oso emozio gogor eta intentsoak bizi ditugu, eta horrek asko sendotzen du hartu-emana. Horrez gainera, astean zortzi funtzio egiten ditugu eta hori erronka handia da. Egutegi zorrotza dugu hori egin ahal izateko, baina ikuskizun honek merezi du, talde honek merezi du, eta publikoaren aldetik jasotzen dugun berotasunak ere energia hori ematen digu.

Astean zortzi emanaldi egiteak suposatzen duen desgasteari aurre egiteko, zelan prestatzen da?

Prestaketa fisiko eta psikologiko handia behar da. Egunean hartzen ditudan erabakien % 90 gauean eszenatokian ahalik eta ondoen egoteko bideratzen ditut. Ordu asko pasatu behar dugu isilik gauero ahotza ehuneko ehunean izateko, gimnasia joaten gara giharrak landu eta lesioak ekiditeko, eta, aldi berean, geure buruari lasaitasuna ematen ahalegintzen gara. Artista batek ez du bakarrik teknika behar; barruko orekari ere eutsi behar dio, oraindino gehiago horrelako obra baten aurrean.

Profesional legez izan duzun erronkarik handiena eta anbiziotsuena dela esango zenuke?

Protagonista titular legez haxe da nire lehenengo aldia, baina aurretik ere izan ditut paper protagonistak; *Mamma mia!* obran, adibidez. Baina ez da berdina astean zortzi emanalditan protagonista izatea edo lantzean behin egitea ordezkio legez. Horrek exigentzia maila igo egiten du, eta igarri egiten da. Horrez gainera, lehenengo aldia da Espainian musikala batek taula gainean hogeik musikari batzen dituen zuzeneko ekitaldi batean. Eszenografia ere sekulakoa da, eta Yaiza Pinillosen diseinuak ere itzelak. Bisualki oso show polita da eta horrek

indar handia ematen digu taulara irten eta dena emateko. Musikariak, eszenografia, jantziak... Dena da itzela. Niretzat egundoko aukera da eta pozarren nago. Lan handia egiten dut egunero hobetzeko.

Aurreko batean zuzendari musikalak kontatu zidan Broadwayko ekoizle erraldoi batzuk etorri zirela antzokira gure obra ikustera. Ezer esan barik agertu ziren. Madrilgo musikala guztiak ikustera joan ziren, eta zuzendariari esan zioten geurea dela Broadwayren mailan dagoen bakarra. Berba horiek oso esaguratsuak dira guretzat, eta lanaren tamaina hartzeko ere baliagarriak dira. Horrelako loreak jasotzea ondo dago, baina, egia esateko, laino moduko batean nago, lana oso gogorra delako. Kanpotik dena polit ikusten da, baina gure egunerokoa oso gogorra da.

Horrelakoak gero gozatuko dituzu gehiago beharbada, perspektibagaz. Bai, urtebete barru-edo dena maitasunez gogoratuko dudala uste dut, baina gure instrumentua gorputza da, eta gogorra egiten da. Gorputza egunero ez da berdin esnatzen; itzartu naitenke minduta, edo laringitis bategaz... Eszenatokian istripu bat izan nuen eta zauri bat dut eztarrian, baina horregaz ere lan egin behar dut; astebetean horrela egongo naizela aurreikusten dut, baina berdin egin



Briel Gonzalez eta Paule Mallagarai 'Marierrauskin' antzezlanean protagonistak.

behar dut nire lana, energia berdinagaz, publikoak sarrera ordaindu du eta. Ez da erraza. **'Marierrauskin'-en berrirakurketa bat proposatzen duzue, maitasun istorio gaurkotuago bat. Zelan hartu dute ikusleek?**

Marierrauskin klasikoa da, baina oso ikuspegi garaikide bategaz. Musika eta berbak oso freskoak dira; Alejandro de los Santosek egin du itzulpena. Istoria 90eko hamarkadan kokatzen da eta mezu berritzailea dakar. Ez da ipuin erromantiko soil bat, Ella indarrez eta nortasunez beteriko pertsonaia da, eta ikusleekin konektatzen duela ikusi dugu. Arriskatu egin gara eta ondo irten zaigu. Badago jende bat Disneyren istorio klasikoa ikusteko ideiaz da torrena eta ikusi eta gero haserre doana. Baina, egia esanda, kartelean argi ipintzen du lanak beste ikuspegi bat duela. **Hemendik aurrera, zein asmo duzu?**

Nire bizitza *Marierrauskin* da gaur egun. Ez dugu data zehatzik, baina denboraldi luze batez lana aretoetan izatea gura genuke, 2026ko uztailean arte behintzat. Gero ez dakigu bigarren denboraldirik egongo den ala ez, baina oraingoz hau gozatu gura dut. Hemendik urte bira-edo zer gertatuko den ez dakit. Antzerki musikala gainera, nutrizio ikasketak ere egiten nabil eta ez dakit hemendik urte batzuetara antzerki musikala egiten jarraituko dudala ala nutrizionista izango naizen, baina nire ametsa amaizatea da. Ama, Euskal Herrian. Bost-sei urte barru Euskal Herrian ikusten dut neure burua.

"EGUNEAN ORDU ASKOAN EGOTEN NAIZ ISILIK, TAULA GAIANEAN % 100 EMAN AHAL IZATEKO"

DA! PRO topaketa, hilaren 25ean eta 26an

DURANGOKO AZOKA DA! PRO topaketaren zazpigarren edizioa egingo dute hile amaieran, azaroaren 25ean eta 26an, hain zuzen ere; Durangoko Azokaren atarian, musika eta familia ikuskizunak egiten dituzten sektorekoen elkargune izango da

A. M. BILBO

Musika eta familia ikuskizunetan lan egiten duten sektoreko sortzaile, profesional eta programatzaileen arteko elkargunea den DA! PRO topaketaren zazpigarren edizioa egingo dute azaroaren 25ean eta 26an. Azokak alde desberdinak aurrez aurre ezagutze-ko aukera ematen du, eta etorkizunerako lankidetzak berriak bultzatu. "Durangoko Azokak bere burua kulturaren jaialdi gisa aldarrikatzen duen neurrian, ezinbestekotzat jotzen du bere jarduna azokako egunetatik harago hedatzea, eta, batez ere, azoka bera tokian tokiko kultur garapenerako baliagarria izatea", azaldu du Beñat Gaztelurrutia elkarteko kudeatzaileak.

Euren proiektua aurkeztu gura dutenek azaroaren 21era arte dute aukera izena emateko. Jasotako proposamenak katalogo bitan txertatu eta programatzaileen esku utziko dira. Musika Bulegoak antolatuko du musika arloko to-



Ordezkaritza politikoa, kulturalak eta sortzaileak.

paketa, eta Berbaro elkarteak familia ikuskizunen arlokoa.

BaDA!bil-en itzulera

Bestalde, aste honetan hasi da BaDA!bil podcastaren hirugarren denboraldia. Durangoko Azokaren

testuingurua baliatuta, kulturari eta sorkuntzari loturiko gaiak jorratuko dira podcastean, euskal sortzaileen ikuspegitik abiatuta. Amets Aranguren izango da berriro aurkezlea, eta denboraldiak sei atal izango ditu guztira.



Bogoroditsie abesbatzako kideak.

Divas del Soul hirukoteak hasiko du lurretako Musikaldia, gaur

MUSIKA lurretako Musikaldiaren edizio berriak soula, jazz eta musika korala hartuko ditu hiru emanalditan

A. M. IURRETA

Gaur emango diote hasiera lurretako Musikaldiaren edizio berriari. Divas del Soul hirukotea arduratuko da kontzertu sortari hasiera emateaz, soul musikaren historiako emakumezkoen ahotsik garrantzitsuenen errepaso eginez. Lidia Insaustik gidatzen du hirukotea, eta Nina Simone, Aretha Franklin, Etta James zein Roberta Flack artista handien abestiak joko dituzte, besteak beste. Insaustigaz batera, Iñaki Miguel (pianoa eta gitarra) eta Andoni Etxebeste (bateria) igoko dira taula gaine-

ra. Bigarren emanaldia azaroaren 14an izango da. Femmm & Band taldearen txanda izango da orduan. Egungo jazzaren eszenan ibilbide luzea duen taldea da eta Donostiako, Getxoko eta Gasteizko Jazzaldietan egon dira, besteak beste. Azaroaren 21ean Durangaldeko Bogoroditsie abesbatza arituko da. Durangaldeko taldeak ahots musika garaikidearen aldeko apustua egin du.

Emanaldiak Ibarretxe kultur etxean izango dira eta sarrera doakoa izango da. Dena dela, antolatzaileek sarrera erreserbatu egin behar dela azaldu dute.



GAI LIBREAN

IGOR GALARZA INTXAUSTI KAZETARIA

Orri zuria

Auskalo nork asmatu zituen beldurra, ikara eta izua. Gizakiak hauskorragoak, ahulagoak, samurragoak... finean, gizakiagoak egiten gaituzte. Kazetariak egunero bizi du egoera hein batean. Ia egunero duzu zerbait kontatzeko, baina idazteko moduak garamatza hasteko zailtasunera. Gaur goizean, beste behin, orrialde zuri bati aurre egin behar izan diozu. Barikua da, eta astean zehar gertatutakoaz, gaurkoaz, edota asteburuan datorrenaz idatzi dezakezu. Baina ezinezkotzat dugun hura lortzeko gogoak bizitzen zaituen moduan, zeregin erraz legez dugun horrek galga bezalako zeozer sortzen dizu. Dena kontatuta dago, baina kontatzen jarraitu behar.

Eta orduan zeozer desberdina kontatzeko apustua egin dezakezu. Baina zein puntutan izan daiteke orijinala, eta zein puntutan suizidio bat, diozuna ez duelako inork ere irakurriko edo entzungo. Hau da: betiko gaien inguruan hitz egingo dut, pil-pilean dauden gaietan sartuko naiz, ala kontatu bako istorio bat kontatuko dut? Behar-

bada, hautu bat edo beste egin, orrialde zuri hori betetzen zoazen bitartean galderak egiten dizkiozu zeure buruari: merezi du edukiak espazio hau? Benetan nabil zeozer desberdina eta gura dudana kontatzen?

Testu bat idazten duzun aldi bakoitzean galdera sorta batek inguratzen zaitu, eta benetan merezi duela uste eta sinisten duzun arte ezinegon sentitzen duzu. Ingaruko batek entzun edo irakurtzen bazaitu eta bere

"BIHAR ERE LABEA ETA OREA IZANGO DITUGU. ORRI ZURIA ERE BAI"

onespena ematen badizu, hartu duzun lana justifikatutzat hartzen duzu.

Gerta daiteke, baina, ezintasunak gain hartzea. Ezinezkoa zaigu ustez, kazetariak gara, gure egin beharra idaztea da, kontatzea. Baina gure lanabesa berba da, batzuetan aurkitu ezin dugun hori. Ez da gertatzen erredakziora heldu eta berbak hor egotea. Etxetik ekar ditzakegu batzuetan, beste batzuetan kajoi eta paper artean aurki ditzakegu; eta beste batzuetan ez daude, beste barik.

Okinak ogia atera behar duen legez, kazetariak testua atera behar, nola edo hala. Batzuetan zurian entregatzea gustatuko litzaidake, ikasi barik joandako azterketa batean egongo banintz lez. Baina azkenerako orria bete duzu, eguneko jarduna beteta, bihar beste egun bat. Kurioso da: beti amaitzen duzu eguna biharkoan gaur etorri ez zaizuna kontatzeko esperantzarekin. Bihar ere labea eta orea izango ditugu. Orri zuria ere bai.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENA-
GO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 7

ABADIÑO Azoka
Hileko 2. domekako azoka. Ekoizle eta artisauen azokagaz gainera, SMH-Aita Mari erreskate ontziaren aurkezpena eta erakusketa, pintxo dastatzea (Amillena), sagar txikitze eta zuku dastatzea (Uxarte sagardortegia) eta piper erretzea (Sartagudako Elias).
Txanporta plazan (10:30-14:00).

ATXONDO Emanaldia
Goazen telesailaren aurrestreinaldia.
Erabilera anitzeko gelan, 20:00etan.

BERRIZ Kontzertua
Placton+Etxe. Fondaren 25. urteurrena.
Fonda tabernan, 20:30ean.

DURANGO erakusketak
'Andra Mariko elizpea. Durangoko bihotza' eta 'Goren Sakona' (Ros Boisier).
Arte eta Historia Museoa, azaroaren 16ra arte.

DURANGO Kontzertua
Janus Lester.
Plateruenan, 22:00etan.

DURANGO Jardunaldia
'Adingabeak eta kriminalitatea historian zehar: biktimak eta delitugileak'. Durangoko Krimenaren Historia Zentroa.
Arte eta Historia Museoa (09:30-13:30).

ELORRIO Erakusketa
Eskulturak Elorrioko Kaleetan.
Iturri kultur etxean, abendura arte.

IURRETA kontzertua
Dirty Rules.
Korta tabernan, 20:00etan.

IURRETA Kontzertua
Divas del soul.
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

OTXANDIO Kontzertua
Aiora eta Piti (Zea Mays)
Arkotxe elkarteak, 19:30ean.

ZORNOTZA Jaiak
Igel txapelketa, 19:00etan.
Karaoke ibiltaria, 19:30ean, Lopenan.
Gu eta gitarrak.
Euskal Herria plazan, 22:30ean.

ZAPATUA 8

ABADIÑO Palestinaren aldeko jaia
Kalejira, 12:30ean, Txanportatik. Dantzari eta txistulariak, 13:00ean. Bazkaria, 14:00etan, frontoian. Gero, bertsopilota partidua. Gaztetxean jai giroa, 21:00etan.
Zelaietan.

BERRIZ Musika
Esanezin.
Kultur Etxean, 19:00etan.

DURANGO Erakusketa
Francisco Escobarren lana.
Ezkurdi aretoa, azaroaren 17ra arte.

ELORRIO Aurka aurkezpena
Aurka Aurkezpena, 18:00etan. Jamaiketako, musika pintxada, 19:30ean, Ume-berrin. Konorte + Rodeo.
Gaztetxean, 22:30ean.

GARAI Erakusketa
'Biribilak mendietan. Seles, kortak, saroiak'.
Elizabarrin, azaroaren 8an eta 9an.

IURRETA Kontzertua
Akustikovers.
Korta tabernan, 20:00etan.

IURRETA Bizikleta irteera
Ibarrangelura irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarteak.
Iurretan, 09:30ean.

ZALDIBAR Kontzertua
Ezta Ilen +Ateri.
Sorgin tabernan, 18:30ean.

ZORNOTZA Antzerkia
'Semaforoa' (Logela Multimedia).
Zornotza Aretoa, 17:30ean.

ZORNOTZA Jaiak
Udaberri dantza taldea tabernetan, 12:00etan, Lopenan hasita. Sukalkiaren entrega, 14:30ean, Luis Urrengoetxea kalean. Sari banaketa, 15:00etan. Gotx elektrotxaraga, 18:00etan, Lopenatik hasita. Moonshine Wagon + Manifa.
Zelaietako karpan, 21:30ean.



TXALO PRODUKZIOAK

ELORRIO Antzerkia
Txalo Produktzioak konpainiak hiru lagun arteko komedia aurkeztuko du gaur Elorrion: *Artea*. Ramon Agirre, Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza aktoreak igoko dira oholtzara, Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean.
Azaroak 7, Arriola antzokian, 20:00etan.

DOMEKA 9

DURANGO Deialdia
Mañaria erreka garbitzeko jardunaldia.
Pinondo etxean, 10:00etan.

IURRETA Bizikleta irteera
Mendarora irteera. Txirrindulari Elkarteak.
Iurretan, 09:30ean.

ZORNOTZA Jaiak
Desafioa Harriti neska proba taldea vs Lutaber, 12:30ean. Gaztedi barria fanfarrea, 13:30ean. Lutaber errifaren zozketa, 15:00etan.
Luis Urrengoetxea kalean.

EGUZTENA 12

ZORNOTZA Jardunaldia
'Pertsonen garapenean bidelagun' doako jardunaldi pedagogikoak: 'Komunikazioa, akonpainamendurako gakoak'. Hizlaria: Nerea Mendizabal, komunikazio ez bortitzean aditua (*andramarizornotzakoikastola.eus*).
Zelaietako auditoriumean, 17:30ean.

EGUENA 13

DURANGO Berbaldia
Hontza Museoaren 10. urteurrena: 'Saguzarrak mundutik Durangaldera' (Hizlaria: Aitor Arrizabalaga biologoa).
Kurutze Santu museoan, 18:30ean.

MAÑARIA Irteera
Hontza Museora bisita, Ursula Donea elkarteak antolatuta. Gero, luntxa.
Hontza Museoa, 17:00etan.

BARIKUA 14

BERRIZ Antzerkia
'Elara, bidaia bat izarretara' (Mar Mar Teatro).
Kultur Etxean, 17:00etan.

BERRIZ Liburu aurkezpena
'Sakeleko bihotzak' (Julen Apella eta Andoni Uriaga).
Gaztetxean, 18:30ean.

ELORRIO Kontzertua
Iosu Izagirre Sextet. Arriolako XXXVI. Jazz Blues Jaialdiaren eskutik.
Ateneoan, 20:00etan.

IURRETA Kontzertua
Jaimones.
Korta tabernan, 20:00etan.

IURRETA Kontzertua
Femmm & Band.
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

ZORNOTZA Kontzertua
Udazkeneko emanaldia: Pandero Alai + Korala Abesbatza + Dizdira Abesbatza + Zornotzako Otxotea + Xurxulariak Abesbatza. Andra Mari Ikastolako Gurasoen Abesbatza.
Zornotza Aretoa, 19:30ean.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Campamento garra de oso
Domeka 9: 17:00.
Txilarreko sukaldaria
Eguaztena 12: 18:30.
(Liburua ere aurkeztuko dute)

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Bugonia
Barikua 7: 18:00, 20:30.
Zapatua 8: 18:00, 20:30.
Domeka 9: 17:00, 19:30.
Astelehena 10: 17:45, 20:15.
Martitzena 11: 17:45, 20:15.
Eguaztena 12: 19:00.
Siempre es invierno
Barikua 7: 20:30.
Zapatua 8: 18:00.
Domeka 9: 18:00.
Astelehena 10: 20:15.
Martitzena 11: 17:45.
Eguaztena 12: 19:00.

Predator. Badlans
Barikua 7: 18:00, 20:30.
Zapatua 8: 18:00, 20:30.
Domeka 9: 17:00, 19:30.
Astelehena 10: 18:00, 20:15.
Martitzena 11: 18:45, 20:15.
Eguaztena 12: 19:00.

Los domingos
Barikua 7: 18:00.
Zapatua 8: 20:30.
Domeka 9: 20:30.
Astelehena 10: 17:45.
Martitzena 11: 20:15.

Disney Junior. Cinema club
Zapatua 8: 16:30.
Domeka 9: 16:30.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

24 ordu digitaletan
Arriolako XX. Film Laburren Lehiaketa
Zapatua: 20:00.

Los Domingos
Domeka 9: 20:00.
Astelehena 10: 20:00.

Los tipos malos 2
Domeka 9: 17:00.

IURRETA

MONTOSTE ELKARTEA

Txilarreko sukaldaria
Eguena 13: 19:00.
(Liburua ere aurkeztuko dute)

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Los Domingos
Barikua 7: 20:00.
Domeka 9: 20:00.
Astelehena 10: 20:15.

Sablehortz Kapitaina eta Greleko Kondesa
Domeka 9: 17:00.

Reinas
Martitzena 11: 19:00.



Garazi Sampedro irabazle Euskal Herriko Kopan

MENDI LASTERKETAK Eskualdeko korrikalariak osatu dute podiuma: Sampedroren ezker-eskuman igo dira Oihane Unzalu abadiñarra bigarren tokian eta Nora Narbaiza zaldibartarra hirugarrenean. Ander Jauregi durangarra txapeldunorde izan da gizonetan

J.D. ATXONDO

Mendi lasterketen Euskal Herriko Kopa joan zen asteburuan amaitu zen, Balmasedako Koltza lasterketaz. Sari banaketan, eskualdeko hiru korrikalari igo ziren emakumeen podiumera: Garazi Sampedro atxondarra txapeldun legez, Oihane Unzalu berriztarra bigarren tokian, eta Nora Narbaiza zaldibartarra hirugarrenean.

Euskal mendizale federazioaren barruko txapelketetan eskualdeko korrikalari gehiago ere nabarmendu da aurten. Ainara Arkarazo abadiñarrak ultren kopa irabazi du, eta Larratiz Aragon durangarra bigarren geratu da kilometro bertikalekoan.

Sampedrok behetik gora egin du Kopan. Ekainean Lakuntza-Aralar mendi lasterketa irabazi zuen, eta uztailean bigarren geratu zen Bidarraiko Baztandarrak trailean. Harrezkero parte hartu duen lasterketan



Garazi Sampedro eta Ander Jauregi Lakuntza-Aralar lasterketako podiumean. EMF

aurrean ibili da. Esaterako, Atxondoko Sorginen Lasterketa laugarren amaitu zuen.

Ander Jauregi

Euskal Herriko Koparen barruan, gizonetan ere badago

zer nabarmendu. Indarpak taldeko Ander Jauregi durangarrak lan bikaina egin du, bigarren amaituta. Bestalde, Master B-C kategorian, Alpino Tabira mendi taldeko David Roman txapeldun geratu da.



Pilotariak, antolatzaileak eta udaleko ordezkariak, martitzeneko aurkezpenean.

Zornotzak pilota profesionaleko lau jardunaldi hartuko ditu

PILOTA Abendutik otsailera bitarteko lau barikutan binakako txapelketako partiduak jokatu dira

J.D. ZORNOTZA

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Zornotzako Amorebieta IV pilotalekuak binakako Serie A eta B txapelketetako lau jardunaldi hartuko ditu. Pilota Pro Fest izenburupean, honako data hauek zehaztu zituzten martitzeneko aurkezpenean: abenduak 5, urtarrilak 2, otsailak 6 eta otsailak 20. Azken horretan kanporaketetako partiduak jokatu dituzte. Jardunaldi guztiak 20:45ean hasiko dira, aurreko aldietan baino lehenago, eta DJ baten musikagaz eta kirol materialen zozketagaz giroa dituzte.

Morgaetxebarriaren partiduak

Pilotari bizkaitarrez osaturiko bikoteak ekartzen ahaleginduko dira; esaterako, Aimar Morgaetxebarria, etxeko pilotaria. Urri hasieran ebakuntza bat egin zioten, ezker eskuko atzamar bat apurtuta zuelako. Ebakuntza ondo joan zela eta errehabilitazioa aurreratu zion atzelari zornotzarrak ANBOTOri prentsaurrekoan.

Jaialdietarako abonua da goeneko salgai daude *'entradas-fronton.com'* webgunean. Venecia eta Urtza tabernan ere eskuratu daitezke.

Fradesek brontzezko domina jantzi du Espainiako txapelketan

TRIATLOIA Iurretarrak atzetik aurrerako bidea eginda lortu du podiuma egitea distantzia ertaineko proban



Sofia Aguayo, Anna Noguera eta Gurutze Frades, Ibizako podiumean. GURUTZE FRADES

J.D. IURRETA

Gurutze Frades lehiara bueltatu zen apirilean, ebakuntza baten ondorioz bost hilabatez geldirik egon eta gero. Harrezkero, pausorik pauso, bere sasoirik onena berreskuratzeko lanean dabil. Joan zen asteburuan, bide horretan beste urrats bat eman zuen Ibizan, distantzia ertaineko Espainiako triatloi txapelketan podiumera igota.

Ohikoa duen moduan, atzetik aurrerako bidea egin zuen. Uretatik bederatzigarren postuan irten zen, bizikletan lau postu aurreratu zituen, eta korrika beste bi. Helmuga 3.55.22ko denboragaz zeharkatu zuen. Bere aurretik sartutako biak ez zituen urruti izan. Anna Noguera irabazi zuen proba (3.53.16) eta Sofia Aguayo geratu zen bigarren tokian (3.53.40).

DRTk giltzatakoak ateratu ditu Movember ekimenari begira

ELKARTASUNA Salmentagaz ateratako dirua mundu osoko mugimenduari laguntzeko izango da

J.D. DURANGO

Urtero legez, azaroaren hasieragaz batera Durango Rugby Taldeak bat egin du Movember mugimendugaz. Mugimendu sozial honek gizonen osasunaren inguruan kontzientzia sortzea du helburu, gaitz fisikoak eta baita osasun mentalaren inguruan.

DRTk produktu bat saltzen du urtero, eta irabazitako dena ekimenerako izaten da. Aurten giltzatako bat ipini dute salgai. Horrez gainera, Movemberreko webgunearen barruan DRTk duen

orrialdean ekarpenak egitera gonbidatu dituzte herritarrak.

Bibotea ikur

Azken urteetan Movemberren ikusgarritasunak "behera egin" duela eta, DRTko kideek ekimenaren parte hartzera deitu dituzte herritarrak. Ekimeneko ikurra bibotea da. Azaroan zehar bibotea utzita ikusgarritasuna ematen zaio mugimenduari. DRTk biboteen argazkiak ateratzeko eta eurekin partekatze eskatu du, ondoren argazki horiek sareetan zabaltzeko.



Jon Gisasola eta Goizeder Abendibar, harrijasotze txapelketa banatan.

Abadiñok Euskadiko txapelketa bi hartuko ditu

HARRIJASOTZEA Zapatuan kintopekoen eta harri txikien txapelketak lehiatuko dira Zelaietako probalekuan. Mallabiko harrijasotzaile bi arituko dira lehian: Goizeder Abendibar eta Jon Gisasola 'Zelai V.a'. Iazko lanak hobetzea dute helburu

J.D. ABADIÑO

Abadiñoko probalekua Euskadiko harrijasotzailerik onenetarikoen topagune bihurtuko da zapatuan. 18:00etan hasita, Euskadiko txapelketa bi lehiatuko dira eta Mallabiko ordezkari bi egongo dira; kintopeko txapelketan Goizeder Abendibar ari-

tuko da, eta harri txikikoan Jon Gisasola 'Zelai V.a'.

Kintopekoan —21 urtez azpikoak— Naroa Arrutik, Maddi Guesalagak eta Olaia Esnaolak osatuko dute txapelaren bila arituko direnen laukotea. Egin beharreko lana honako hau da: hiru minutuan ahal den beste altxaldi

egitea 50 kiloko harri kubikoagaz eta zilindriko zaharragaz.

17 urteagaz, Abendibarrek bigarrenen parte hartuko du Euskadiko txapelketan. Iazko lana hobetzea du helburu nagusi, txapelerako lehia baztertu barik. "Kintopekoetan heldu da puntu bat zeinetan edozeinek irabazi

dezakeela txapela, hiru minutuan ezin dugulako jasoaldi gehiago egin. Alde txikiak izaten dira, jasoaldi baten edo biren bueltan gabiltza. Beraz, batek egun txarra badauka eta besteak ona... ikusiko dugu zer gertatzen den", esan du harrijasotzaile mallabitarrek. Iaz hiru jasoaldiko aldea baino ez zen egon Guesalaga txapeldunaren eta Abendibar laugarren sailkatuaren artean.

2025a "oparoa" izaten ari da Abendibarrentzat. Inoiz baino plaza gehiago egiten dabil eta txapelketetan itxaroten ez zituen "sorpresa onak" hartu ditu; esaterako, Tolosako Bedaio auzoko harri baldarren txapelketan, irailean. "Parte hartzera joan bakarrik, eta bigarren geratu nintzen", gogoratu du Zarauzko

Izeta herri kirol taldeagaz entrenatzen den gazteak.

Gisasola iazkoa hobetzer

Harri txikien txapelketan, Gisasolaz gainera Paulo Aspiaz, Mikel Lopetegi, Eneko Bilbao, Iker Sojo, Oscar Aguas eta Beñat Telleria arituko dira honako harriekin: 100 kiloko bola, 112,5 kiloko kubo, 125 kiloko zilindroa eta 125 kiloko errektangularrak. Iaz, Gisasolak aurrenekoz parte hartu zuen maila absolutuko Euskadiko txapelketa ofizialean, eta orduko lana hobetzea du helburu. "Lehenengo aldia beti da gaxa. Betekadaxoa hartu nuen. Urtetik utera hobetzea izaten da kirolarion nahia eta horixe dut helburu", adierazi du Mallabiko Txondor herri kirol elkartearen dabilen gazteak. Sasoi onean badator, Mikel Lopetegi ikusten du txapela janzteko hautagai nagusi.

Azaroan egutegian gorritz markatutako beste hitzordu bat ere izango du 26. urteko mallabitarrek: Bizkaiko harrijasotze txapelketa, hilaren 23an. 2021ean, 2022an eta 2023an berak jantzi zuen txapela, eta aurtan berriro irabaztea du helburu.

GISASOLAK BIZKAIKO TXAPELKETA LEHIATUKO DU AZARO AMAIERAN; TXAPELA LORTZEA DU HELBURU



JOKALDIA

KARMELE GISASOLA ZENIKAZELAIA 'ZELAI III' HERRI KIROLAK

Zorte on, Goizeder eta Jon

Hala nahi duten ikastetxeetan, herri kirolei, euskarari eta emakumeari lotutako hitzaldiak ematen ditut. Eta hasiera beti da berdina. Galdera batekin hasten naiz eta zuri ere, irakurle, galdera bera egingo dizut. Duela ehun urte, berogailurik, mikrouhin laberik eta bitrozeramik ez zegoenean, nola berotzen zuten jatekoa edota etxea? Hemen hasten dira ume guztiak esanez, suarekin! Eta bai, sua behar zuten. Baina sua nola egiten zuten eta egiten da? Bada, egurrarekin. Eta garai batean, nondik lortzen zuten egurra? Gaur egun motozerra eta mota guztietako zerrak daude, baina garai batean zerekin moztzen zuten egurra? Bada, trontza edo aizkorarekin. Beraz, herri kirolek baserriko lanetan dute oinarria. Edo beste galdera bat egiten diedana: behiek zer ematen dute? Esnea. Gaur egun esnea supermerkatuetan eros dezakegu, baina garai batean, behiak jatsi, esnea kantinetan sartu eta baserritik kalera jaisten ziren esnea saltzera. Hortik dator txinga eramate kirola. Gure

amonen kasuan, Mallabiko goita auzotik, Ermura jaisten ziren. Hasieran astoekin, ondoren amona izan zen auzoko lehenengo emakumezkoa gidabaimena ateratzen eta berarekin batera jaisten ziren gainontzeko emakumezkoak land-roverrean.

"IKUSIKO DUZUE ABADIÑON, BADUGULA ETORKIZUNA BAI GIZONEZKOETAN ETA BAI EMAKUMEZKOETAN HARRI-JASOTZEN"

Herri kirolak lana izatetik kirol izatera pasatu ziren. Baina nola? Hasieran, apustuekin. Euskalduna lehia-korra izan da eta norgehiagoka aritzea gustatu zaio. Nor izan azkarragoa, nor indartsuagoa, nor trebeagoa,... Gerora hasi ziren txapelketak, arauak, federazioak, epaileak,... Hasierako garai horietan ez pentsatu emakumezkoen ikusterik. Ez plazan, eta plazatik kanpo ikusle bezala ere, gutxi. Baina garaia aldatuz doaz eta gaur egun plaza barruan zein ikusle bezala edonon aurki daiteke. Eta ikusiko duzue larunbat honetan, Abadiñon, gaur egun momentuz badugula etorkizuna bai gizonezkoen eta bai emakumezkoen harri-jasotzean. Hor arituko baitira Euskadiko Txapelketan Mallabiko bi gazte, Goizeder eta Jon. Urteko zitarik garrantzitsuenak izaten dira Euskal Herri mailako txapelketak, eta gustura hartuko dute zaleen berotasuna. Nire partetik, zortetik onena opa dizuet.

KOMIKIA UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

AZAROAK 7, BARIKUA
09:00-09:00
Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
AZAROAK 8, ZAPATUA
09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
AZAROAK 9, DOMEKA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
AZAROAK 10, ASTELEHENA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
AZAROAK 11, MARTITZENA
09:00-09:00
Navarro, Artekalea 6 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
AZAROAK 12, EGUAZTENA
09:00-09:00
Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
AZAROAK 13, EGUENA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



June Etxebarria
Azaroaren 5ean Eibarko txapeldunak, **June Etxebarriak**, urteak egiten ditu. Zorionak, txapeldun!



Isidro Garcia
Zorionak, aitite! Musu handi bat zure seme-alaben eta biloben partez. Urte askotarako!



Lorea
Azaroaren 10ean, Loreak zortzi urte potolo! Zorionak, printzesa, etxeko danon partez!

GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

661 40 14 00
 Gozatu Gozotegia
 gozatugozotegia

Urte askotarako!

Zorionak Iñigo (1040.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:
Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
Ordezkaritzak
Etorri zaitez Anbotoren ordezkaritza edo deitu 946 232 523 telefonora.

AGORA

EZAGUTZAREN PLAZA

Dietetatik harago: elikadura osasungarria eta aldizkako baraua

HIZLARIA: NAHIA ZEZIAGA

Izena ematea beharrezkoa da

Azaroak 11
18:30
Hizkuntza: gaztelania

Elikadura orekatuaren printzipio praktikoak azalduko dira eta aldizkako baraua zer den salatuko gara, mitonik gabe.

BITARTEKARIA

ANTOLATZAILEA

Iurreta
Elikagaitza eta elikagaitza

LIBURU-AURKEZPENA

SAKELAKO BIHOTZAK
Julen Apella

Azaroak 21, barikua.
19:00etan

hitz

artekalea 23, durango
946 830 776
info@hitzdizionarioa.com



Durangaldeko
Okm gida

Zabaldu zure negozioa lau haizeetara

*Durangaldeko OKm gida
erakusleiko ezin hobea duzu
eskualdeko merkataritza
eta zerbitzuetan.*

*Jarri gurekin harremanetan konprometuz barik
688 731 402 telefonoan*

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

www.anboto.org/gida





LAU-HORTZA

MARTA CALVO
LARRALDE

Sexu eskubideak edo

Ginekologoaren kontsultara pozik doan emakumerik ez dut ezagutzen. Hankak zabaltzearekin batera datozelako galdera, aurreiritzi eta epaiak.

Lagun batek kontatu zidanez, bikote egonkorrekin kondoia uzteko asmoa zuenean, beste antisorgailu batzuen gainean galdetzeraz joan zen, baita sexu bidezko infekzioak detektatzeko probak egin ziezazkieten eskatzera ere. Erantzuna? "Neska! Konfiantza izan!"

Beste lagun bati probak ukatu zizkieten, lesbiana izanik, bere kasuan, beharrezkoak ez zirelako.

Hirugarrenari Giza Papilomaren Birusaren proba positibo atera zitzaionean Giza Immu-noeskasiaren Birusaren proba egiteko eskaria egin zuen. Erantzuna? "Prostituta ez bazara, Tinder zoro baten antzera erabiltzen ez baduzu edota Chemsex-a praktikatzen ez bazabiltza, arrisku baxua duzu".

Indarkeriaz betetako erantzuna. "A ze fauna gurea!" edo horrelako zerbaitek pentsatuko zuen. Egia esan, niri bost zer pentsatzen zuen. Kondoia erabili behar dela? Noski, baina probak normalizatu behar direla ere bai.

Asko dira berandu detektatzen ari diren infekzio eta birusak; beraz, mesedez eta faborez, ukatu, epaitu edota lotsarazi beharrean, eskertu, zoriondu eta txalotu ditzagun proba eske doazen heroi anonimoak.

AKUILUA

"Perretxikoari hazten utzi beharko genioke"

ESTEBAN RUIZ PASTOR ERROTARI MIKOLOGIA ELKARTEKO PRESIDENTEA

Durangoko Errotari mikologia elkarteak 25 urte egin ditu. Ia 400 bazkide batzen ditu eta 2003tik mikologiaren esparruan erreferente bihurtu den urtekaria kaleratzen du

A. Basauri DURANGO

Esteban Ruizek (Bilbo, 1959) gozatu egiten du perretxikoak batzen, jaten baino gehiago. Astero joaten da perretxikoei argazkiak ateratzera, lagun bigaz batera. Errotari elkarteak Euskal Herriko, Espainiako eta Europako bazkideak ditu, baina, hala ere, Ruizen esanetan errelebo falta dago perretxikoen ezagutzagaz jarraitzeko. Elkarteak Intxaurrondoko eraikinean duen lokalean astelehenero batzen dira, 19:30etik 21:00etara.

Errotarik 25 urte egin ditu aurten. Elkarte erreferente bihurtu da Euskal Herrian.

Elkartearen helburuetariko bat ikerketan sakontzea izan da, eta urte hauetan guztietan azterlan horretan murgildu da. Bide horretan, erreferente izaten lagundu digun Errotari urtekaria argitaratzen hasi ginen orain 22 urte. Placido Iglesiasek zerikusi handia izan du horregaz. Placido Errotariren sortzaileetarikoa bat da, eta 16 urtean elkartearen presidentea izan da.

Perretxikoen ezagutza dibulгатzea ere baduzue helburu.

Errotari perretxikoen ezagutza zabaltzeko eta pozoitzeak ekiditeko jaio zen. Horregaz batera,



"HAINBAT PERRETXXIKO ESPEZIE BERRI IRTEN DA, GURE INGURUETAN ERE BAI"

ikerketa lan jarraitua egiten dugu. Kanariar Uharteetara, Madeira-ra, Azoreetara... bidaiatu dugu hango flora mikologikoa aztertzeko. Euskal Herrikoa ere aztertu dugu, jakina. Izan ere, hainbat espezie berri irten da, gure inguruetan ere bai.

Aurten ez dago perretxiko askorik.

Hemen irailean eta urrian irteten dira perretxikorik gehienak, baina, berez, urte osoan hazten dira. Hala ere, aldaketa klimatikoa asko igartzen da. Izan ere, perretxikoei euren zikloa dute, hezetasun eta tenperatura baldintza zehatzak behar dituzte. Eta asko mikorrizak dira: landareen zuztarrekin elkartuta bizi diren ondoak dira, eta elkarri onura egiten diete.

Nondik datorkizu zaletasuna?

Aitarengandik. Gerra zibilean Errusiara eramandako umeetarikoa bat izan zen. Errusia perretxiko lekua da eta asko baloratzen eta jaten dute. Handik perretxikoei buruzko jakintza apur batez bueltatu zen, eta, urteekin, ezagutzan sakondu eta perretxiko dibulгатzaile ezagun bihurtu zen. Asko joaten nintzen beragaz perretxikotan.

Durangaldean zaletasun handia dago perretxikotarako?

Bai. Orokorrean, Euskal Herrian. Hala ere, gutxi batzuekin konformatzen gara; izan ere, badaude batzuk ospe handia dutenak.

Badago mitorik perretxikoei buruz?

Orokorkerietan jausi barik, perretxiko bakoitza ezagutu behar da. Oztaran batzea da egokiena, ontzi gogorra izanik babestutako daudelako. Bestalde, perretxikoari hazten utzi beharko genioke. Behin, 3 kiloko onddo kaskabeltza aurkitu nuen; esporak askatzen hasita zegoen. Hori ez da ohikoa, baina badaude hartu daitezkeen 600-800 gramoko onddoak.

Topatu duzun perretxikorik arraroenak?

Gomphus clavatus-a. Bitxia da hemen agertzea, eta Oletako harizti batean ikusi dugu, beti toki berean. Baina azken hiru urtean ez da irten.

PABILIOIA SALGAI

Iurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateylexpe.com

